

Berberotarra

20 urte berbaro etengabean

Adinez nagusia, gaztea. Eta zahartu gura ez duen heldua. Gogo horrekin jaio zen, urte asko ez hartzeko asmoz. Ona, latza, *no time for love* abestiaren garaia zen; baina gustukoena *Esaiok* nuen orduan.

Salda badago entzuteaz batera, euskaldunon negu gorriari salda beroa emateko koadrila zoroa etortzen zitzaidan burura. *Ez dago ilusio faltsurik* egiterik pentsa zezakeen batek, baina *benetako*a baitzen asmoa, erabaki irmoa eta aintzakotzat hartzekoa. *Gangster berriak* zirela uste zuten batzuek, eta haiek ere erakartzeko gai izan ziren. Biltzarrak, ostera, goi mailakoak izan beharrean, txikiak ziren Berbarotarrenak.

Apurka-apurka, *kalea hutsik* barik, betetzen joan zitzaigun; sarri, *zigorraren zai* egotea tokatu bazaigu ere. Berbarok zerbait esateko, egiteko, eragiteko bokazioa zuen; ez zebilen *txantxetan*, ez, duela 20 urte batu zen koadrila hura. Ondoko testigantzak irakurtzea besterik ez dago kontu serioaz dihardugula konturatzeke.

Sasoi hartan musika taldea hark erakusten zuen INDARRAren antzekoa izan da, eta gaur egun ere bada, Berbaro mugitzen duena. Nik, edabe magikorik ezean, indar horrekin zipiritandu gura zaituztet, ume, gazte, zahar... Oraindik HAMAIIKA egin eta ikusteko ditugu-eta. Hau da *animatzen hauena*, ezta? Ni bai. Felice, berbarotar bat.



GAZTEAK

Azkeneko 3-4 urtetan hartu dogu Berbarok antolatutako udalekuetan parte. Guretzat uda hauek denak izan dira onak eta desberdinak.

Inoiz, mendian erdi galduta be ibili izan gara, ordu pare batez edo, baina hori be, giro alai eta euskaldunean bizi izan dogu. Aurten be, Berbaroren udalekuetan hartuko dogu parte, eta gogotsu gagoz, batez be, lagun berriak egiteko aukera izango dogulako.

Aurten, gugaz batera, Lasarteko Ttakun euskera elkarteko gazteek be egingo baidabe Bermeo eta Castro arteko bidea. Baina udan ekintzak egiteaz gainera, urtean zehar, neguan, batez be, denok elkartu eta ekintzaren bat edo topaketaren bat pentsatu eta uztailean ezagutuko doguzen Lasartearrei bisita egitea gustatuko litxakigu.

NIEVES ARANOA

Zorionak Berbaro! Hogeitaz urte sasoi ederra da gazte eta indartsu egoteko, eta hori opa deusut. Hogeitaz urteotako hainbat oroitzen daukadaz; hasieran egiten ziren bertso-afariak, Valderejora irteera eta beste zenbait gauza. Berbaron sasoi haretan lagun handiak egin nituen eta gaur egun daukadan koadrila euskalduna Berbarori esker sortutakoa da. Urteetan aurrera goaz, baina umorez eta gogotsu jarraitzen dogu. Nik neuk, ahal dodan heinean, Durango euskalduntzeko jardueratan parte hartzea gurako neuke. Ia 40 urte daroadaz Durangon, eta ni hona bizitzera etorri nintzenean baino euskaldunagoa da Durango. Bada, euskaraz bizi gura dogun guztiok jarraitu daigun gure herria euskalduntzen. Aurrera Berbaro, eta jarraitu beste hogeitaz urtean be egindako biderari.



NEREA UNZALU

Urtebete pasatxo daroat umeein begirale, eta oraintsu amaitu dot bi urteko begirale ikastaroa. Hainbat aisialdi ekintzatan parte hartu izan badot be, begirale jardunaldi luzeena Olgetan ludotekan egiten nabil.

Ludotekan umeen errealitatea ikusteko aukera izaten dogu: euren gustuak, komunikatzeko era, motibazioak, hartu-emonak egiteko ahalmena, hizkuntza jabetzeta... Berbarok, euskara talde bat izanik, umeei aisialdi alternatiboa eskaini gura deutse euskaraz.

Begiraleok era ludikoan jasotzen doguz umeak, honeek gureganatuz eta jolasaren bitartez euskarak era kargarritasun handiagoa hartzen dauen ziurtasunaz jabetuta. Halan be, lan asko egin beharra daukagu denok. Guk gure aldetik umeak konkistatzen jarraituko dogu...

PAUL ASTIGARRAGA

Berbaro sortu baino lehenagoko gogorapenen bat badaukat kontatzeko, eta horixe egingo dot. Arrasaten sortua zegoen euskaraz bizi gura ebenen elkarteak: AED, Arrasate Euskaldun Dezagun. Durangora etorri jakuzen guri azaltzen zergaitik, zertarako, zelan...

Arkarazo tabernan batu ginen koadrila bat, mahai baten inguruan. Ha izan zen, segurutik, Berbaro sortzeko emon genduen lehenengo urratsa.

Harrezkero, sarritan ibili naz euskararen inguruko saltsatan, eta hainbat oroitzapen on etorri jat burura, baina hunkigarriena, esango neuke, 201eko Korrikan gure elkartearen izenean testigua eroatea izan dela. Amaitu gura dot gazteei mezu bat bidaltzen: datozela Berbarora, euskaraz bizi gura dogunon ingurura, euskararen alde egiteko, munduari beste modu batera begiratzeko.

RAKEL ODIAGA

"Txakurrekin eta umeein bakarrik berba egiten dut euskaraz" esan zidan elkarte bateko bazkide batek Berbaron lanean hasi eta egun gutxira.

Sasoi hartan, Durangoko denda eta elkarteetan euskararen erabilera handitzeko lanak egiten nituen; "Guk euskaraz" egitasmoko teknikaria nintzen.

Anekdotak hau alde batera utzita, bagaude txakurrekin eta umeein euskaraz hitz egiteaz gain, euskara egunerokotasunean erabili nahi dugunok ere.

Bagaude, 'Pixka bat'-i gutxi deritzogunok, eta umeein, nerabeekin eta helduekin ere euskaraz berba egitea gustuko dugunok.

Euskararen erabilera sustatzeko uneak eta guneak sortzen diharduelako naiz Berbaroko bazkide.

Berbaroko langile garen aldetik, uneak eta guneak sortzeko ahaleginak egiten ditugu egunero.



GAIZKA URIARTE

"Herritik sortu, herriari emoteko..." horrela zihoen, kantak eta horrelakoa da Berbaro ere herritik sortua duela 20 urte, eta honezkerok hamaika dira herriari emandakoak. Horietako bat da hiltegi zaharrean eraikitako Plateruena kafe antzokia. Herritik sortu zen duela 6 bat urte, eta herriari euskal kultura eta aisialdi gune bat emoteko asmoz.

Gazteak ginen proiektu honen lehen zertzeladak entzun genituenean, ez ordea zoroak bete-betean sinistu genuelako. "Apa gabon". "Apa gabon?!", hori ez da ongietorria era profesionalean emateko modua, txo! Sandalia eta galtzerdiekin ez duzue matxaka itxurarik!". Horrelakoak bota izan dizkigute antzokiko atean. Eta egia da, ez gara profesionalak ezta matxakak ere. Atezain lana egiten dugu noizean behin gurea sentitzen dugun Plateruena alde. Halaber, boluntarioak dira, ez-profesionalak, Azoka inguruan patata tortilla gozoak egiten dituztenak, kamiseta saltzaileak, wi-fi instalatzaileak, Ines, Txoko, Joselu, Miren, Andoni, Eukeni, Eunete, Borxa, Joseba, Iker... Txaloak, oraingoan, zeuentzat.

PURI SARRIONANDIA

Zorionak Berbaro!!!

20 urte, eta atzo izan zela emoten dau. Ate kantoitik begira nagoen honetan, Berbaron bizi izandakoa pozik, ilusinoz gogoratzen dot. Eguen arratsaldeetan elkartzen ginen; barriketan, lanean, zer egin erabakitzen eta, apurka-apurka, hainbat ekimen martxan jartzen. Sentsibilizazioa zen gure taldeak jorratu beharrekoa. Lagunak egin nituen: Joseba, Inma, Txapel... Bai ondo pasatzen genduela! Ikasi be asko.

Gaur egun, ate kantoian nagoela esan dot. Eta egia esan, ez gogo faltagaitik, ez horixe!. Beste etapa batean murgilduta bizi naz, eta ez dot asti handirik hartzen. Hori bai, erne begiratzen deusat Berbaroren uztari eta benetan oparoa izan dela esan behar dot. Animo, eta aukera izanik, durangar guztioi dei bat egiteko aprobeixatuko dot, asko daukagu-eta elkarri emoteko, eta askoz gehiago elkarrekin egiteko.

GORKA BARRUETABEÑA

BERBARO, bizitza bat

20 urte bete ditu Berbarok. Horreetatik 15 bertan lanean egin ditut. Gogoratzen dot proposamena jaso nebanean ni "jarraitxu" bat nintzela, eta Berbaro elkarte barrirako jentea Euskadiko Ezkerrakoa zela esaten zela gure inguruan. Alderdi horrek atzerakada emoten eustan, eta zalantza batzuk eduki nituen. Ez zen oso normala niretzat hainbat ideologiatako jenteagaz euskararen alde batzea. Sasoi haretan edozein proiektu martxan jartzeko gai ginela uste genduen. Eta egin genduzen batzuk; taberna, txokoa, Eraz, Berbaroko Itzulpen Taldea, Anboto, euskara zerbitzua, Dida, Martzaa, Topagunea, Antzokia. Eta uste dot "edozer egiteko gai" sentitze horrek euskararen aldekotasunek pizteko balioa zeukala. Gaur, argi daukat administrazioaren benetako babesa eduki bagendu, itzelezko proiektuak gauzatuko genduzela. Durangoko Udalak ludoteka zabaldu dau. Ludotekaren proposamena guk orain dela 15 bat urte egin genduen. Pentsatu 15 urtean zenbat umek edukiko eban hartu-emonen euskaragaz...



ITZIAR BELAR

Azaroan, 9 urte etorriko dira Eraz astekarian lanean hasi nintzela. Lanaldi erdian komertzial lanak egiten nituen, eta beste erdian Berbaro, Eraz eta Di-Da-ko diru kontuak. Urte hauetan guztietan gauza asko dira aldatu direnak; lankideak, gerenteak, zuzendariak, Eraz - Anboto astekaria, Berbaro taberna - Plateruena kafe antzokia. Aldaketa hauetan guztietan zer azpimarratu? Anboto; ilusioz sortutako astekariak 337. alea publikatu duelako gaur; lan talde txiki bat izatetik 12 langileko taldea izatera pasatu garelako, eta, nola ez, Berbaro elkarte bera, komunikazio proiektu hau berak sortzeaz gainera, urtero-urtero eman digun laguntzagatik izango ez balitz Anboto astekariak ezingo lukeelako aurrera egin. Eskerrik asko, Berbaro, eta zorionak 20. urtebetetzean!!!!!!!

JOSEP VIGO

Euskal Herrian bizitzen daramatzadan sei urte hauetan izan dut Berbaro ezagutzeko aukera. Berbarok hogeitau urte hauetan herrian errotzea lortu du. Hainbat ekintza egiten baditu ere, nik elkartearekin daukadan esperientziak bakarrik hitz egin dezaket. Berbarok, beste elkarte eta erakunderekin batera, euskara ikasten edo nire euskara maila hobetzen laguntzen dit.. Nola? 'Berbalagun' ekimenaren bidez. Jakin badakit Berbaro elkarteak beste ekintza asko egiten duela, eta horietatik eraginkorrena gazteentzako udako kanpamentuak direla uste dut. Egia da gaur egun ume eta gazte gehienek euskara badakitela, baina egia ere bada ez dutela erabiltzen. Hori dela-eta, garrantzitsua deritzot euskaraz komunikatzeko esparruak sortzeari, hizkuntzaren erabilera normalizatzeko. Beste horrenbeste gertatzen zaigu euskalduntzen ari garen ni bezalakooi. 'Berbalagun' ekimenak euskaltegia ez den beste esparru batean euskaraz hitz egiten eta sozializatzen laguntzen digu, lotsak alde batera utzita. Beraz, eskerrik asko eta jarraitu horrela!

Hamaika herritarren hamaika iritzi www.berbaro.com web gunean

GONBIDAPENA

Berbaro elkarteak, irailaren 3.asteazkenean zehar egingo ditugun ospakizun ekitaldietara gonbidatu nahi zaituzte.

Denok gonbidatuta zaudete, Berbarotar zaretenok edota izan ez arren, euskeraz bizitzeko gogoia duzuen guztiok!

Egun handia:

IRAILAK 19

KANTU POTEOA + BAZKARIA + ERRROMERIA

Egun handiaz gain, beste zenbait ekintza ere egingo ditugu, ume zein helduentzat.

Laguntzaileak:



Berbaro elkarteak. Pinondo plaza 1, 48200 Durango 267pk
www.berbaro.com • Tel.: 94 620 19 18 • e-maila: berbaro@berbaro.com